



Parkea diseinatu

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- LINGUAIA.
- NATUR ZIENTZIAK.
- TUTORETZA.
- HIZKUNTZA.

HEMEN PROPOSATZEN dizuegun jardueran, ziklo bereko ikastalde guztiek har dezakete parte aldi berean. Pertsona bakoitzak zein gizarte-kolektibotakoa izan nahi duen aukeratuko du: adinekoak, etxeko andreak, langabeak, ama langileak, langile gazteak, ikasle nerabeak...

Talde bakoitzari eskalan egindako parke baten oinarritzko eskema emango zaio. Eskemak eskaintzen dituen aukerak aztertuta, zuen gizarte-sektorearen beharrak asetzeko moduan antolatu beharko duzue

HELBURUAK

- Elkarriketan eta adostasunean funtsatutako jarrera parte-hartzaileak sustatzea.
- Gizarte-talde bakoitzaren beharrianak hausnartzea.

espazioa; horretarako, zuen kolektiboarentzat baliagarritzat hartzen dituzuen elementuak kokatuko dituzue eskeman bertan (edo planoan).

Adostasuna lortu eta zuen proposamena prestatu eta gero, talde bakoitzak bere ordezkaria aukeratuko du. *Ordezkarien batzarrak* talde bakoitzak adierazitako beharrak eta iritzia aztertu eta parkearen diseinu berria egingo du. Talde bakoitzak egindako proposamenak guztien aurrean irakurriko dira, prozesu osoa amaitutakoan.



Oharra:

Herriko edo auzoko benetako espazio mugatu bat ere diseina daiteke, eta, geroago, ikasgelan taxututako proposamenak Udaleko Hirigintza Arlori bidali.